

Ordizian, **2016ko irailaren 26an**, Udaletxe honetako Alkatetza bulegoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras
Mila Sukia Galparsoro

EAJ/PNV
Ordizia Orain

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Igor Eguren Izagirre
Iñaki Dubreuil Churruca

EH Bildu Ordizia
PSE-EE (PSOE)

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

Carlos Gonzalez Astiz IRABAZI alderdiaren ordezkaria dena azaldu da.

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- Ohiko deialdian 2016ko irailaren 12an egindako batzordeko akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 3.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - . - 6.000 €tik beherako fakturak.
 - . - Alokairu soziala.
 - . - Peoien lan-poltsa.
 - . - Mugikortasun-mahaia.
 - . - Erakunde jakinarazpena.
 - . - Egoera irregularrean dauden kontratuen zerrenda.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16:10



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- Ohiko deialdian 2016ko irailaren 12an egindako batzordeko akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2016ko irailaren 12ko bileraren aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



Jarraian Batzordeburuak eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du.

2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- 48.zenbakidun zerrendaren berri ematen da, kopurua: 44.966,71.-€

Aldeko irizpena jaso dute.



3.- Txostenak eta hainbat eskari.

.- 6000 €tik beherako fakturak.

47,49 eta 50. zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Ikusita.

.....

.- Alokairu soziala.

Esleipen-irizpideak finkatzeko ardura duen Batzordea atzeratzea erabaki da (bertan Udalean ordezkariak duten talde politiko guztiak daude ordezkaturik, gehi IRABAZIko ordezkariak), irailaren 28an, asteazkena, egingo da (Osoko Bilkurarako Gaien Batzordea eta gero) Batzordeko 2 kidek ezin zutelako joan eta oso gai garrantzitsua delako.

Mila Sukiak uste du onuradun bakoitzaren kasuistika eta egoera pertsonala hartu behar direla kontuan.



Gonzalez jaunak adierazi du, bere ustez irizpideak Oinarrietan ezarri behar zirela baina ez denez egin, beste deialdi baterako esleipen irizpideak aztertu eta adostea proposatzen du eta aurrean onuradun izan diren guztiei %50a ematea.

Gonzalez jaunak proposatutako irizpideak ondorengo hauek dira:

- Zortasun-maila (oinarrizko beharrak).
- Familia unitateko kideen gaixotasunak eta desgaitasuna.
- Adina (lehentasuna nagusiek eta haurrek).
- Urteko diru-sarrera gordinak.
- Familia-unitateko kide kopurua.

Idazkariak onuradunen datuen zerrendaren kopia bidaliko die bilera honetara etorri ez direnei.

.....

Peoien Lan-poltsa.

Peoien lan-poltsa berritzea komeni dela uste du Alkate jaunak.

.....

Gonzalez jaunak Mugikortasun Mahaiari buruz galdetu du.

Alkate jaunak erantzun dio esanez Mugikortasun Mahaia lanean hasteko egun bat ezartzea komeni dela eta deialdi publiko bat egitea herritarrei ondorengo gaiei buruz hitz egiteko partaidetza prozesuan izen emateko: aparkalekuak, eremu urdina, ibiak, trafiko mugimenduak eta abar.

.....

Gonzalez jaunak adierazi du erakunde mailako komunikazio faltagatik (eta ez alderdi politiko bezala) batzuetan zinegotzien kexak daudela. Batzuetan komunikazioa hobetzen saiatu behar dela uste du, eta berriro azpimarratu du, erakunde mailan hobetu behar dela.

.....

Idazkari andreak jakinarazi du hurrengo Gobernu Batzordera egoera irregularrean dauden kontratuen zerrenda ekarriko duela. Kontratu horien indarraldia aspaldi amaitu zen eta aztertzea komeni dela uste du, lehentasunak finkatu eta legezketasunera egokitzeko.



Jarraian Batzordeburuak eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du.

4.- Galde-eskeak.

Ez dago.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.

